

Hona hemen bere omenez idatzitako bertso sorta:

XAMALBIDE

Doinua: **Afrikako gerrarenak**

1.

Abuztuaren batean,
etxe-aurreko atean,
Errioxako partean;
oporraldia gozatzen hasi
gabea nintzen artean.
Mezu txarra bat-batean,
lagun batek esatean:
"Xamalbide hil da bakean..."

2.

Nonbait minbiziak jota,
mundu honetatik bota;
etenda bertsoen soka.
Egia esan, bere omenez
idatzi dut bertso sorta;
lan xumea, ez du inporta;
bere bertsokera mota
ia galdua dago-ta.

3.

Nahiz fraide izan edo apaiz,
ez ditu hartuko etsaiz
zeru aldean, ziur naiz.
Hirurogeita hamabost urte;
zaharragoak hil dira maiz.
Heriok eraman garaiz,
betiko aurpegi alaiz,
Joxe Usabiaga Arbelaiz.

4.

San Fermin egunez jaio,
gaztetan bertsotan iaio;
neurri/doinuen garraio.
Gipuzkoako Txapelketetan
parte hartuz, zer arraio!
Orain hainbat bertso saio
utzita esan du aio.
Errespetua zor zaio!

5.

Zamalbideko magala,
konturatu da hil dala;
hortxe jaiota, normala.
Bertan kantari aritua zen,
hango txoriak bezala;
bizitzan gizon leiala,
orain utzi du itzala.
Jaunak saritu dezala.

6.

Haren ahozkotasuna,
hemen hain zen ezaguna;
benetako euskalduna.
Bere inguruan euskal giroa,
beti euskaraz jarduna.
Iritsiko da eguna,
aintzat hartuko duguna,
orain joan den laguna.

7.

Bertsozale/bertsolari,
bada zalantza ugari,
begiratzu hil denari;
Xamalbide hain berezia zen,
beti ari zen kantari.
Zaletasuna nabari,
nahiz ez lortu mila sari,
bertsolaritzan gudari.

8.

Auskalo noiz zen hasia,
bere kabuz ikasia;
agian zerbait nahasia.
Baina bereizten ongi zekien
otea eta sasia,
sagar geza ta gazia;
eta ezohiko grazia;
hark erein zuen hazia.

9.

Hankaluze/hankamotza;
neurrian ez hain zorrotza
ta berezia ahotsa.
Lagunartean, tabernan edo
berdin zapalduz oholtza;
beroa edota hotza,
aspaldi galduta lotsa,
bertsotarako bihotza.

10.

Ez zen puntakoen pare,
goi mailara heldu gabe;
baina herrian zutabe.
Bertsozaleen omena nahi ta,
ez zen egin horren jabe;
Bertso Eskolak halare,
omendurik bare-bare,
bihurtu zuen ondare.

11.

Gero "Bertatik Bertara";
ospetsu, joanda hara:
"Dei-tu zen-ba-ki hon-ta-ra..."
Joxe ETB-n agertzen zenez
guk entzun bere euskara;
nahiz ta ikusi kamara,
sentitu gabe ikara;
gaur egiten dit zirrara.

12.

Zerura hainbeste bide,
bidezidor, errepede;
gaur han mila adiskide.
Elektrikari, argia jartzen;
hori zenuen lanbide.
Itzali zen Uztapide...
baita Lazkao Txiki're.
Piztu itzazu Xamalbide!